

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 260. zenbakia. 2017ko urria



**Irene Pérez,  
modako jauzia**

San Martin Kulturala 2017

# Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, azaroaren 3an, 22.15ean

Andoni  
Egaña



Onintza  
Enbeita



Maialen  
Lujanbio



Ibon  
Ajuria



Uxue  
Alberdi



Odei  
Barroso



Josu  
Goikoetxea



Gai-jartzailea

Sarrera: 10€  
Lobiano Kulturagunean,  
Kutxabankeko kutsazain,  
webgunean eta  
944 310 310  
telefonoan salgai.



# DROGETEN ITZURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian,  
liburutegian, euskaltegian,  
Abiapuntun, hortz klinikan,  
okindegian, ambulatorioan...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta hel-  
bidea [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) hel-  
bidera eta hilerro-hilerro etxeko  
buzoian jasoko duzu.

# Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA  
ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA  
tel. 943 17 43 44 • [ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com)

Agente eksklusibok:

**Allianz**   
Seguros

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Dorleta Vidal,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Irene Pérez.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Valentin Mugarza,  
eta Jabi Vidal.

**ARGAZKIAK:**

Ernuan Bagara,  
Eskolabarri,  
Amaia Arginzoniz,  
Ciencia en acción,  
Jardunaldi Mikologikoak,  
Danel Ferreño,  
Ainhoa Cáceres,  
Ermuko Euskaltzaleen Sarea,  
Estibalitz González,  
Irene Pérez,  
Valentin Mugarza,  
Ainara Riveras,  
eta Ekhi Velar.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Mirene  
Moreno eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

## Babia saltzen (Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Babia saltzen ari nintzala  
Eibarko Plaza Barrian,  
neska gazte bat galdezka neukan:  
- "Babiori zenbatian?"  
- "Hamazazpian saltzen dot baina  
zuzetzat hamabostian,  
hamabostian nahi ez badozu  
laztantxo baten trukian.

Aizazu gizon ganorabako,  
gainera lotsik bagia,  
babian truke zuk nahi zenduke  
neure laztana hartzia?  
Neure laztana ainduta daukat  
bai eta neure honria,  
askoz zu baino nik nahixago dot  
Jose Maria maitia.

Neska polita, entzun egizu  
dinotsudan arrazoia:  
lau etxe baitut eta dirutan  
gutxienez bai milioia.  
Pentsatzen bozu, neskatxa ederra,  
nerekin esposatzia,  
lehenengotikan izango zara  
gauza guztien jabia.

Nik ez dot behar zure etxerik  
ez eta ere milioirik,  
nik ez dot gura mundu honetan  
maitetasuna besterik.  
Ez eizu hartu gauza horregaz  
batere buruhausterik,  
ni ez nijua ukatutzero  
behin emondako barbarik.



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4

Ainhoa Cáceres (Herbehereak)

ELKARRIZKETA .....5-7

Irene Pérez, atleta eta modeloa

MALLABIAN ZER? .....8-9

Danel Ferreño, bateria-jotzailea

MOTZEAN.....10-11

Jardunaldi Mikologikoen 30. urteurrena

SAN MARTIN .....12-13

Oharrak eta San Martin Kulturala

ERREPORTAJEA .....14-15

Euskararen sarea ehuntzen

BOTEPRONTOAN.....16

Migel Mugarza

KIROLZALE .....17

Roger Cordero, futbol entrenatzailea

ESKOLEN TXOKOA .....18

Eskolabarri ikastetxeko albisteak

IRITZIA .....19

'Xanduli, Manduli, Kikiriki!

Eman goxokiak guri!

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ZORION-AGURRAK.....21

Saldu, erosi edo agurtu

AZAROKO AGENDA ...22

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

## Ainhoa Cáceres

Ainhoa Cáceres Cuadrado Ermuko neska gazte bat da, 19 urte ditu eta iaiz Santanderreko unibertsitatean matrikulatu zen kazetaritza eta publizitatea gehi marketing gradu bikoitza egiteko. Bere familia, lagunak, dantza zein hemengo bizimodua atzean utzita, hilabete batzuetarako Holandako Venlon hirira abiatu da bere ikasketa prozesua jarraitzeko.

### - Nolatan sartu zinen marketing+publizitatea eta kazetaritza ikastera?

Egia esanda ez nekien zer ikasi, gauza asko nituen buruan: filologia, magisteritza, kazetaritza... baina azkenean komunikazioa ikastea erabaki nuen. Ez nekien zer hartu eta denbora nuen nire kontra, beraz, nire gurasoek gradu bikoitza egitera bultzatu ninduten. Oso gustura nabil hau ikasten, ez nuke nire erabakia inola ere aldatuko.

### - Holandan zaude zenbait hilabeterako. Nolako izan zen lehenengo harremana Holandarekin eta bertakoekin?

Izugarria izan da, hala ere, etxetik kanpo egotera ohituta nagoela esan dezaket. Jendearekin oso ondo moldatu naiz, denak ikasleak gara, beraz erraza izan da eurekin harremana finkatzea. Lehenengo egunetik primeran hartu ninduten. Denon helburua topera gozatzea da. Esperientzia aberasgarria da, eta gure artean giro ona izatea eta mantentzea dugu helburu.

### - Gogorra izan zen erabakia hartzea?



Ez, ezagutzen nautenek badakite erabakiak azkar eta pentsatu gabe hartzen ditudala. Hau da, banekien atzerrira joan nahi nuela nire ikasketak egitera, beraz, aukera guztiak begiratu nituen eta Holanda izan zen gustukoena. Izena eman eta gero pixkat beldurtu nintzen, baina normaltzat hartu nuen. Erabakiarekin jarraitu nuen etorri arte, ez nuen atzera egin momentu batean ere ez. Oso argi neukan hona etorri nahi nuela eta hala izan da.

### - Familia beti izan duzu babesle. Harreman ona daukazu?

Noski, eurak izan dira neurri batean hona etortzera bultzatu nindutenak. Mundua ikustera animatu eta ni neu independenteagoa izaten erakutsi didate, pertsona bezala haztea. Hor daude uneoro, nahiz eta fisikoki ez egon, hartzen dudana edozein erabakitan hor daude. Santanderren nagoenean animatzen naute eta hemen ere, Holandan, berdin.

### - Bertan, lagunak edo harremanak egin dituzu?

Bai! Lehenengo egunetik jendea oso jatorra izan da, beraz, ez dago inongo arazorik. Espainiako, Italiako, Frantziako, Bulgariako eta beste zenbait herrialdeetako jendea bizi da hemen, oso ondo moldatzen gara. Plan asko egiten ditugu. Alemaniako jendearekin elkartzen gara, jatorrak eta adeitsuak dira. Denetik irakatsi nahi didate, leku askotara eraman naute eta laguntzeko beti prest izaten dira, egonaldia perfektua eta egokia izan dadin.

### - Nolako da bertako eguneroko bizitza?

Izugarria da. Klasea dugunez, ohitura batzuk markatzen dituzu, baina beti daude gauza berriak. Egutero norbait edo zerbait berria ezagutzeko aukera dago. Asko bidaiatzen dugu, beraz, ez dugu aspertzeko denborarik. Asteburuetan hiriburu, hiri zein herrialde batzuk bisitatzen ditugu. Ni bizi edo nagoen toki hau, Venlo, bidaiatzeko leku oso estrategiko batean dago. Gainontzekoa, hemen bezala: bazkaldu, lagunekin irten, festa... eta noski! Ikasi ere! (barreak).

Amaia Arginzoniz

**SAN ANTONIO**  
OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA  
HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



Irene Pérez, atleta eta modeloa:

**“Bizitzarako baliagarriak diren gauza asko ari naiz ezagutzen modarekin”**

Bere bidea hasi berri du modelo moduan Irene Pérezek, baina ez du nolana hasi. Madrilgo kaleetan egin zuen pasarelako lehen lana Mercedes Fashion Weekaren aperitiboan eta, orain dela aste gutxi, Ion Fiz diseinatzaile ermuarraren jantziekin desfilatu zuen Guggenheim museoan. Pump magazine Ingalaterrako aldizkarian ere bere argazkiak daude ikusgai. Modelo lanak, hala ere, ez dio kendu atletismoan jarraitzeko gogoia. Bere pasioa. 2018an, gainera, Txilera joango da hilabete batzuetan zehar karrerako bigarren lauhilekoa ikastera. Berak dioen bezala, ezin da ezer egin gabe egon.

e|karrizket|a

- Ion Fizek 15 urte bete ditu modaren munduan eta Guggenheim museoa 20 urte bete ditu aurten. Bi urteurren horiek ospatzeko desfilea egin zen eta zuk bertan parte hartu zenuen modelo moduan. Nolako esperientzia izan zen?

Ion Fiz hemengoa izanda, urteurren berezi hauek ospatzeko Guggenheimen desfilea egitea ideia ezin hobea izango zela pentsatu zuen, eta hortik abiatu zen aukera. Martina Models agentziarekin hitz egin zuen eta bertan nago ni. 20 modelo behar zituen eta neure burua aurkeztu nuen. Denbora dezente eman genuen entseatzeko eta desfilean parte hartzeko aukeratu ninduten. Demaseko esperientzia izan zen. Pertsona famatu ugari izan zen bertan eta alde horretatik errespetua ematen zuen, baina oso ondo.



Irene Perez Pump Magazinean.



- Zer egin behar izan zenuen hainbeste entsegu behar izateko?

Ion Fizek goi-mailako jostakintza lantzen du. Neurria egindako jantziak dira eta lan handia dago horren atzean. Goi-mailako jostakintzako desfileak ez dira soilik pasarelara igo eta ibiltzea. Lan gehiago dago. Adibidez, eskularru batzuk jantzen badituzu, eskularru horiek nabarmendu behar dituzu moduren batean edo bestean. Pauso asko eman behar dira. Momentu bakoitzean egin beharreko keinuak ere asko lantzen dira, neurtuta dago guztia. 50. hamarkadara bueltatzea, emakumeen kurbei garrantzia ematea eta publikoarekin elkar eragitea nahi zuen Ion Fizek. Azken puntu hori zen garrantzitsua eta, azken finean, aktore bagina bezala aritu behar ginen. Tira, lortu genuen!

- Nola sentitu zinen?

Oso ondo! Urduri nengoen nire bigarren desfilea zelako, baina primerako esperientzia izan zen. Modu ezin hobean tratatu ninduten eta luxua izan zen.

- Ion Fiz ezagutzen zenuen?

Banekien Ermukoa zela, baina ez nuen pertsonalki eza-

## “Sinestezina iruditzen zait nire burua Ingalaterrako aldizkari batean ikustea”

gutzen. Gainera, gauza bitxia gertatu zitzaidan berarekin. Egun batzuk lehenago fitting eguna izan zen (fitting eguna arropa probatzeko eguna izaten da) eta hurrengo egunean, Bilbotik paseatzen nabilenean, denda batean aurkitu nuen. Hasieran berba ez egitea pentsatu nuen, ezagutuko ez ninduela uste nuelako, baina nitaz akordatzen zen. “Zu atzo fittingean egon zinen, ezta?”. Eta nik, “Bai!”. Ermukoa naizela esan nion eta berba egin genuen. Oso jatorra da.

- Ion Fizekin zerbait gehiago egiteko aukerarik baduzu?

Oraindik ez, baina demasa izango litzateke! Orain formakuntza lanetan nago agentzian, ikasten. 14 ikasgai eskaintzen dira bertan eta hor nabil. Modelo moduan nabilela esaten dudanean, batzuetan amorrua ematen dit, jendeak pentsatzen duelako milioiudun egiteko zerbait delatedo. Eta ez da hori. Atzean lan asko dago, asko ikasi behar da, modaren historia ezagutu, protokoloa, argazkilaritza... gauza asko.

- Guggenheimekoa zure bigarren desfilea izan dela aipatu duzu. Noiz izan zen lehenengoa?

Hori ere oso esperientzia ona izan zen, ez nuelako espero bertan egotea. Madrilgo modaren astea irailean izan zen, Mercedes Benz Fashion

Week, eta Cibeleseko desfileen aperitiboia izandako horretan hartu nuen parte. Kanean egin zen desfilea eta Maria Lafuente izan zen diseinatzailea. Madrilgo La Latinako kaleetan ibili ginen desfileatzen eta, nire lehenengo desfilea izateko, izugarria izan zen! Normalean 15 metro egiten ditugu eta gero buelta, baina hor ez, 800 metro egin behar izan genituen. Zeinen poliki pasatzen zen dena! (barreak) Baina oso ondo, egia esan. Askari ari naiz gozatzen honekin.

- Nola murgildu zinen modaren munduan?

Inoiz ez dut esan modeloa izan nahi nuenik, baina betidanik gustatu izan zait iragarriki eta horrelakoak egin ahal izatea. Orduan, agentzia batean izena eman nuen. Nire argazkiak bidali eta iragarki bat egiteko aproposa zarela irizten badiote, deitu egiten dizute. Ez zen gauza askorik irteten hortik, jende asko dagoelako bertan apuntatuta, eta hemen gertuko beste agentzia batzuk begiratzen hasi nintzen Googlen. Martina Modelsengana jo nuen eta castinga egiteko deitu zidaten. Proba egin eta hartu egin ninduten, eta orain formazioan nago bertan. Hasieran pentsatu nuen pasarelako modeloentzako agentzia besterik ez zela, baina barrutik ezagutu ta, ikusi dut bertatik gauza asko interesatzen zaizkidala. Ja-

HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
 2012ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELLETAN  
 BIZKAIKO  
 TXAPELDUNAK  
 PROBLEMA 3-945170563  
 ERMOA

**ZERMIK**  
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
 Usetxe plaza 6-8, behea  
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
 Telf: 943 23 10 12

sotzen ari naizen formakuntza ez da bakarrik modaren munduan aplikatzeko, egunerokotasunerako ere oso baliagarria delako.

**- Pasarelan aritzeaz gain, beste arloren batean aritu zara?**

Bai. Modelo izatea ez da pasarelara igotzea bakarrik, argazkilaritzarekin lotura handia dauka. Argazkilaritzako lehen klasea praktikoa izan zen eta argazkilaria mugitzeko esaten zigun argazkiak ateratzen zituen bitartean. "Eta nola mugituko naiz?", galdeztzen nion nire buruari. Nahiko ondo irten ziren argazkiak, baina ikasi egin behar da hori ere. Hortik bi astera argazkilaria deitu zidan eta ile-apainketa saioa egitea proposatu zidan Ingalaterrako aldizkari baterako. "Noski baietz!", erantzun nion. Argazkiak publikatu dituzte eta aldizkaria erosi dut (barreak). Sinestezina iruditzen zait nire burua hor ikustea!

**- Modako zein arlotan sentitzen zara gusturago?**

Asko gustatzen zait mugitzea eta ezin naiz egon gauzaren bat egin gabe. Argi neukan atletismoa ez nuela utzi-

ko, egunero entrenatzen dudalako eta gehien betetzen nauen kontua delako. Atletismoari esker naiz orain naizena hein handi batean. Kontua da, modaren munduko gauza asko gustatzen zaizkidala. Hasieran argazkilaritza gustatzen zitzaidan, baina desfileak egin ostean beste modu batean ikusten ditut. Arropa batek ez du bizitarik izango inork janzten ez badu. Uste dut moda ez dela modaren mundura bakarrik mugatzen. Egin dudana guztiarekin gustura nago, pozik.

**- Zaila da modaren mundua?**

Bai, nik pentsatzen nuen baina askoz zailagoa. Ez bakarrik pasarelara igotzen zarenean, baita horren atzean dagoen lanarengatik ere. Dena perfektu irten behar da. Gainera, zure burua saldu behar duzu moduren batean, beste modeloen artean nabarmendu behar zara eta zaila da.

**- Exigentzia asko dago zure gorputza zaintzeko orduan?**

Egin beharreko lan arabe-rakoa da hori. Komentarioak entzun ditut, baina niri ez didate inoiz ezer esan pisuaren inguruan. Diseinatzaileek bai eskatu ditzakete neurri bate-

## "Espainiako Txapelketara joan eta nire marka hobetzea nahiko nuke"

ko edo besteko modelook, eta ez bazaude eskaera horren barruan, ba ezer. Korrika egitea, dieta bat mantentzea... gomendatzen dizute, baina ez dira zorrotzegiak, ez dituzte modelo oso argalak nahi. Niri ez didate exigentziarik jarri.

**- Atleta izanik, zentzu horretan berezkoa duzu kirola egin eta zaintzea.**

Gorputza oso tonifikatuta nuela aipatu zidaten agentzian. Nik uste dut atletismoari esker gorputz on bat izan dezakedala.

**- Atletismoari dagokionez, nola zaude une honetan?**

Iaz ez nintzen oso ondo ibili. Entrenamenduetan topera aritu izan naiz eta gauzak irreteten zaizkit bertan, baina Espainiako Txapelketan ez zitzaidan gauzak nahi bezala irten. Hala ere, pozik geratu nintzen 8. postua lortuta. Bestetik, 2018ko otsailean Txilera joateko asmoa daukat. Atletismoko denboraldia bi zatitan banatzen da, udakoa eta negukoa, eta negukoa ondo prestatu nahi dut. Gero, ikusiko dut Txilen ea zer egingen dudan.

**- Zertara zoaz Txilera?**

Ikastera, Erasmus moduan. Haur Hezkuntzako magisteritza ikasten ari naiz eta bigarren lauhilekoa egingo dut han.

**- Nola moldatzen zara ikasketak, atletismoa eta modelolana uztartzeko?**

(Barreak) Egia esan ondo moldatzen naiz. Goizetan Leioara noa ikastera, arratsaldetan entrenamenduetara noa egunero eta modelo kontuari dagokionez, hilean zortzi saio izaten ditugu, 16 ordu guztira.

**- Txilen atletismoa egingo duzu?**

Informazioa eskatu dut eta hainbat talderen berri eman didate. Ez dakit lehiatuko naizen, baina entrenatu ahal izango dut. Gero, agentziak ere esan didate Txileko beste agentzia batekin kontaktatu ahal dudala, baina hori nire kontu.

**- Zein erronka daukazu atletismoan?**

Abenduaren amaieran hasiko gara txapelketekin eta orain aurrendenboraldian gaude, jo eta su. Otsailean Espainiako Txapelketa egingo da, eta bertara joan eta nire marka (1,66 m) gainditzea da nire helburua. Zaila da, udan egon ohi garelako momenturik onenean, baina saiatuko naiz.

**- Eta modan, zein erronka daukazu?**

Ez daukat helbururik, egunerokoa nago murgilduta. Nire bizitarako baliagarriak diren gauza asko ari naiz ezagutzen eta nire ustez prozesua da garrantzitsuena. Cibelesten edo New Yorken aritzea izugarria izango litzateke, baina bidea egin eta ahalik eta gehien ikasten saiatzen ari naiz orain.

Ekhi Velar



**MALLA**  
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

**NEREA IÑIGUEZ**  
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

# Musikari gaztea handitzen

Bederatzi urte bete arte Ermuan bizi izan zen Danel Ferreño Ramos, baina Mallabian bizi da orduetik. 24 ditu eta oso gaztetatik hasi zen musika munduan murgiltzen. Gaur egun Hesian eta Stai Zitto taldeetan jotzen du bateria. Horrez gain, perkusio eta bateria klaseak ematen ditu Ermuko eta Portugaleteko musika eskoletan.

**- Noiz eta nola hasi zinen mundu honetan murgiltzen**

Tira, 10 urterekin bateria ikasteko klaseetara apuntatu nintzen Alboka musika eskolan, 15-16 urterekin kontserbatorioan hartu ninduten eta hortik aurrera nire egunerokotasunean danborrak ez dira falta!

**-Zein da zure formazioa musikan?**

Betidanik argi izan dut musika ikasketak egin nahi nituela. Donostiako kontserbatorioan perkusio eta bateria modernoko espezialitatea egin nuen Madrilen.

**-Non hasi zinen lehenengo pausoak ematen?**



Lehenengo pausoak lagun artean egin nituela gogoritzen dut. Batek gitarra hartu, beste batek baxua, nik bateria eta garajera joaten ginen gure gustuko taldeen kantuak jotzera. Garai har-

tako oso oroitzapen politikak ditut.

**-Irakaslerik baduzu buruan?**

Bai, irakasle askorengana joan naiz klaseak hartzera. Bakoitzak zerbait irakasten dizu, bai teknika, bai adierazpen aldetik. Madrilen hartzen ditudan klaseekin gelditzen naiz, Jose Bruno (Fito, Leiva edota Sabina-ren bateria-jolea) irakaslearengandik jasotakoekin.

**-Familiaren babesa izan duzu?**

Bai, edozein arlotan moduan, familiaren babesa edukitzea oso-oso garrantzitsua dela uste dut. Nire kasuan familia osoaren babesa eduki dut hasieratik, baina ezagutu ditut kontrako kasuak, familiaren babesik izan ez dutenak eta horrek motibazio falta eragiten du. Kontserbatorio garaian izan zen. Horregatik... ez etsi!

**-Stai Zitto, Hesian eta beste talderen baten jotzen duzu?**



**uriarte asesores** ✓

Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Telefona: 943 53 57 48  
Mugikorra: 649 55 99 09  
ohlalaermua@gmail.com



Orain momentuan, kontzertu daten arazoengatik bi talde hauekin nabil, Stai Zitto eta Hesian-ekin.

**-Stai Zittoren sortzaileetako bat zu izan zinen. Nolakoa izan zen esperientzia?**

Esperientzia oso ona izan zen Stai Zitto taldea sortzea. Betiko lagunaren arteko proiektu bat da, eta kantuak sentitzen ditugun moduan konposatu eta jotzen ditugu. Niretzat oso dibertigarria da.

**-Hesianen berriz, fitxaketa izan zinen. Nola suertatu zen hori?**

Stai Zitto-rekin alderatuta, Hesianen beste funtzio bat daukat (barreak). Orain dela 3 urte Zuriñek deitu zidan Hesian taldea batera jole berri baten bila zebilela esanez. Nik baiezkoa eman eta froga batzuk egin nituen taldearekin. Handik egun batzuetara aukeratu nindutela esan zidaten.

**-Gustura ikusten zaizu bai taldekideekin eta bai jotzen duten musikarekin.**

Oso gustura nabil egia esanda. Entsegu, grabaketa, herriz herri kontzertuak eman eta errepidean furgoneta barruan ematen

ditugun orduak eta orduak egin ondoren, familia handi bat osatzen dugu. Hesian taldeak 11 urteko ibilbidea du eta beste kideengandik asko ikasten dut.

**-Urriaren 28an zure herrian joko duzu Hesian taldearekin. Zer suposatzen du horrek zuretzat?**

Oso gogotsu gaude. Familia eta lagunak hurbil izateak eta sentitzeak asko pozten nau. Baina aldi berean, triste gaude, birako azkeneko kontzertua dela-

ko. Egun berean Mallabian eta Galdakaon joko dugu, eta birako azken bi kontzertuak dira. Horren ostean hilabete batzuk pasako ditugu Hesianen zortzigarren diskoa grabatzen.

**-Jarraitzaile sutsuak ditu Hesianek? Haiekin duzuen harremana gertukoa dela uste duzue?**

Bai, jarraitzaile sutsuak ditugu (barreak). Oholtza gainean zein behean jendearen berotasuna asko eskertzen dugu.

**-Non ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?**

Bueno, proiektu berriak beti ditut bueltaka, baina nire burua antzerako ikusten dut hemendik urte batzuetara. Ermuko eta Portugaleteko musika eskolatan perkusio eta bateriako klaseak ematen jarraitu eta asteburuetan herriz herri esperientzia musikal berriak bizitzeko eta gozatzeko asmoarekin.

Amaia Arginzoniz



**Modas Candé**  
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia  
T 665 703 904  
modascande@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak

**Mayte**

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**ZK**

**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
"LAN BABESERAKO  
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15


**ERMUKO SARITUAK  
'CIENCIA EN ACCIÓN'  
LEHIAKETAN**

Bertako zein atzerriko proposamen zientifikoak jaso zituen Eibar eta Ermuan egin zen 'Ciencia en Acción' ekimenak. Ermua-Mallabia Oinarrizko Lanbide Heziketa Zentroko neska-mutilek ohorezko aipamena eskuratu zuten Zientzia eta Teknologia kategorian, Enterprise esperimuntuari esker. Autozoioko, ile-apainketa eta estetiko eta mekanizatuko ikasleek elkarlanean landu dute proiektu hau, eta plastikozko botila batetik abiatuta sortutako propulsiio hidrodinamikoko suziria izan da ardatza.

San Pelayo ikastetxeko taldeak, bere aldetik, ohorezko aipamena eskuratu zuen Antzezlanen atalean. 'Desafío Challenger' antzezpenari esker, 'Ciencia en Acción' lehiaketako epaimahaiak biologia, geologia, fisika eta beste arlo zientifikoak jendaurrean modu original eta entretenigarrian aurkeztu izana saritu zuen.

**'PressPlay!' Giza Eskubideak ulertzeko**

Ikus-entzunezko bidaia egitea proposatuko du 'PressPlay!' egitasmoak bigarren urtez. Mundua ulertu eta elkartasuna eraikitze-ko Giza



Eskubideen beharra ardatz hartuta, "gizarte barneratzaile bat kontuan hartzea eta Giza Eskubideak gureak diren zerbait bezala pentsatzea, nahastea eta birnahastea da gure asmoa", diote antolatzaileek. Helburu hori oinarri hartuta, hainbat jarduera eskainiko dira urriaren 24tik azaroaren 2ra.

**Mundua ulertzeko ikus-entzunezkoak**

Urriaren 24 eta 25ean 19:30etan, eta 26an 20:30etan, hainbat ikus-entzunezko emango dira antzokian. Batetik, Farid Eslamen 'Yallah! Underground / Arabiak' emango da, eta bertan egongo da Javier Aisa arabislamiar munduan aditua den kazetaria. Bestetik, Andreas Hartmannen 'My Buddha is Punk / Birmanian' emango da, eta Fernando Armendariz Giza Eskubideetan adituak eta Monica Hernando 'Víctimas y Derechos Humanos' elkartearen zuzendariak hartuko dute parte bertan. Eta azkenik, Göran Olsson, Lamin Daniel Jadama eta Lars Lovenen 'Fonko / Afrika' eskainiko da, Chema Caballeroren laguntzarekin.

Andrea Aisa Vega hezkuntzkomunikatzaile eta kontsultoreak bi heziketa-tailer eskainiko ditu. Bata Lobianon urriaren 31an, 18:00etatik 20:30etara, 'Unibertso solidario hedatuak' izenburupean. Eta bestea Ermua-Mallabia Lanbide Hastapenerako Ikastegian, 'Nire mundua: zure mundua' lelopean, azaroaren 2an 11:30etatik 14:30etara.

Herritarren aktibismoa aldarrikatzeko asmoz, 'Ermuaren erretratuak. Bizitza eta onarpen istorioak' argazki-estudio irekia egingo da urriaren 30 eta 31an 17:00etatik 19:00etara Lobianon. Honen emaitza abenduaren 18an ikusi ahal izango da Merkatu Plazan.

Egitaraua borobiltzeko, azaroaren 2an jaialdia eskainiko da San Antonio ermitan, Izelaieta kalean. Musika, graffitia eta dantza egongo da 'Las guerrilleras del micro', 'El flow feminista' eta 'Back to the roots'-en eskutik 18:00etatik 23:30etara.



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Zubiaturre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065  
[www.quetzalmoda.com](http://www.quetzalmoda.com)

**T** XALAPARTA  
ABERNA

**Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiatzapikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**Erdikokale 13  
(Ermua)**

**ENKARGYAK  
943 030 299**



Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00



943 170474



ileapaindegia

**Silvia**

peluquería



688819336

## 30 urte bete dituzte Jardunaldi Mikologikoek



Ermuko Mikologiaren Lagunak elkarteak antolatzen dituen Jardunaldi Mikologikoek 30 urte beteko dituzte aurten. Urriaren 26tik 29ra egingo dira eta jardueraz betetako egitaraua osatu dute urteurren berezia ospatzeko. 26an, adibidez, Kirolaren Eguna egingo dela aprobetxatuz, Ermuko Errotabarri Eskubaloi Elkarteke Anne Erauskin eta Sara Garrido omenduko dituzte plazan 19:30etan. Gero, afaria egingo da eta bertara joan nahi duten pertso-

nek 943 17 07 39 edota 630 71 06 48 telefonoetara deitu dezakete.

Hurrengo egunean, 27an, Pablo García Azkarate Bizkaiko Mikologia Federazioko presidentea eta Pedro Castro Sanchez adituak hitzaldi didaktikoa eskainiko dute 19:00etan Lobianon 'Hogeita hamar urteko ibilbidea' izenburupean.

Larunbat goizean inguruko mendietara txangoa egingo da, eta arratsaldeko 18:30etan Oliver magoak ekitaldia eskainiko du.

Asteburuari amaiera emateko, igandean XXX. Erakusketa Mikologikoa egingo da 10:00etatik aurrera, eta espezie ezberdinen erakusketa eta dastaketa egongo da Alboka Musika Eskolako trikitilarien doinuekin lagunduta. Bestetik, VI. Mikologia Argazki Lehiaketa Nazionalera aurkeztu diren irudien erakusketa zabalik egongo da Lobianon 29ra arte 18:00etatik 20:00etara.

## Burmuina lantzeko aukera Udalaren laguntzarekin

Burulogy enpresa ermuarra eta Udala elkarlanean jarri dira helduen buruko osasuna zaintzeko asmoz. Horrela, Udalak Burulogyren ikastaroaren %85a ordainduko du, bezeroek hilean 10 euro ordaindu beharko dutelarik. Teknologia berrien bitartez burmuina lantzeko ariketa profesionalak diseinatzeko dituzte bertan, eta funtzio kognitibo guztiak era ludikoan lantzea da euren asmoa. Burulogykoek diotenez, "hilabete pare bat pasa eta gero hobekuntza bat ikusten da", eta gainera, "taldean lan egiten denez, erlazio berriak egiten dira".

55 urtetik gorakoei zuzentzen zaie ikastaroa, "eta gaur egun adin guztietako jendea daukagu". Klaseak Izarra Centren egiten dira astelehen eta asteazkenetan bi orduz gitan. Bata, 10:00etatik 11:00etara; eta bestea, 11:00etatik 12:00etara.

Abendura arte iraungo du ikastaroak, "baina luzatzeko aukera dago". Gaur egun 20 kide batzen dira bertan, "ia denak Ermukoak, Mallabiko eta Markinako pertsona bana izan ezik", baina izen-ematea zabalik dago oraindik. Apuntatu nahi izanez gero, Burulogyra gerturatu (Izarra Centren), 943 17 72 45 / 679 05 26 51 telefonoetara deitu edo Whatsapp idatzi, edota info@burulogy.com helbidera edo Facebook orrialdera idatzi daiteke.

## DENBORALDIAREN HASIERA ARRAKASTATSUA AITOR HERNANDEZENTZAT

Azken urteotan ziklo-kroseean garaipenak pilatzera ohitu bada ere, Aitor Hernandez ez da helmugan besoak altxatzeaz nekatu. Urriaren 1ean ekin zion 2017/18 denboraldiari Los Corralesen (Kantabria) eta bertan lortu zuen sasoko lehen garaipena Javier Ruiz de Larrinagaren aurretik. Astebete geroago bigarren lasterketa Euskal Herrian jokatu zen, Urduñan, eta bertan ere aurreneko postuan iritsi zen amaierara Specialized-Ermua Impulso taldeko txirrindulari ermuarra Ruiz de Larrinagaren aurretik berriz ere. Bitik bi. Hurrengo lasterketak Burgoseko probintzian lehiatu zituen, baina nahiz eta aurreneko postuetan ibili, ez zuen garaipenik lortu.

Orain Euskal Herriko lasterketetan arituko da abendura arte, eta gero Katalunia eta Balentiako hainbat lasterketetan lehiatzeko asmoa dauka Hernandezek. Momentuz ez dauka atzerrian lehiatzeko asmorik "eta gozatzea, nire maila onenean egotea eta Felipe Orts bezalako txirrindulari handiekin nor baino nor aritzea da nire helburua", bere hitzetan.



Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**CITROËN**

**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14

# Hemen da 28. San Martin Azoka!

Ermuarrek gorritz apuntatuta daukate egutegian azaroaren 11a. Lagunekin batu eta ezagunekin topo egiteko egun aproposa izaten da, euskal jai giroan primeran pasatzeko eguna: San Martin Azoka. 28. edizioa biziko du aurten Euskal Birusa Euskara Elkarteak antolatzen duen ekimenak. Nola ez, azokara hurbiltzeko gonbidapena luzatzen dio elkarteak ermuar eta Ermutik kanpoko edonori, eta horretarako ekintzaz beteriko egitaraua prestatu du.

Den-dena ondo joan dadin, hainbat lan dago egiteko prestakuntzan eta azoka egunean zehar. Lagundu nahi izanez gero, 943179350 edota 688632874 telefonora deitu dezakezu, edo euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi.

## Egin beharrekoak:

- 6:00etan azokaren muntaia.
- 9:00etan plazako txosnaren muntaia.
- 15:00etatik aurrera: dena jaso.

## Egunean zehar:

- Errifak saldu.
- Taloen eta tiket postuetan eta txosnan txandak egin.
- Saiheskia erre...

**...animatuko zara?**

## TALO IKASTAROA

Malengo elkarteak talo ikastaroa jasoko du azaroaren 8an 19:00etan. Mari Carmen Urkidi eta Juanita Aspiazu esperientzia handia duten talogileak izango dira ikastaroa emango dutenak. Bertan emango zaie beharrezko guztia parte-hartzaileei, eta saioaren amaiera taloa eta txorizoa jateko aukera izango da, beraz, etxera afalduta joateko aukera ezin hobea izango da! Izena emateko (2 euro) 943179350 edota 688632874 telefonora deitu behar da, edo euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi.


## EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO BABAJANA

Dakizuen bezala, Ermuan euskararen erabilera sustatzeko eguna bezala sortu zen San Martin Azoka, eta gaur egun ere hori dugu ardatz nagusi! Beraz, antolatzen dugun babajana euskaraz hitz egiten jarraitzeko beste gune bat da. Gogoan izan konpromezu bat hartu behar duzuela bertara hurbiltzen zaretenek: euskararen erabilpena. Babajanerako sarrerak, bestetik, urriaren 24tik aurrera jarri ziren salgai 15 eurotan Euskal Birusaren bulegoan (Elexoste, 1) edo 688632874 telefonoan eskatuta.

## 28. SAN MARTIN AZOKAKO LAGUNTZAILEAK GARA!

HANIGANS, LURPE, HERGA, DQ, YOMI, TXANTXIKU, TORREKUA, ERTZ, KARABIXA, TXALAPARTA, SIRIMIRI, SECRETOS, DAKOTA, TITANIC, MOLOKO, SORGIN, INFREÑU, SAGARRA, CAPEROS, KARIKATO, XAGUA, MENDIOLA, LONDON, GIROA, GOIEN, ZUTIK, MIGEL HARATEGIA, SOLOZABAL ESTANKOA, TODO A CIEN IDOIA, SEHIGA, ANBOTO BURDINDEGIA, BETA ELEKTRIZITATEA, IRALE HORTZ KLINIKA, URRETA BURDINDEGIA, MAITE URDAITEGIA, AMAIA HARATEGIA, SAGARDUI POLTSAK, MT ILEAPAINDEGIA, ESANLINE, SPARA ARKITEKTURA eta KOKKO ARROPA DENDA.

## Tasio eta Sabino



**-Euskal Birusekoek laguntza behar dute San Martin Azokan.**

**-Horrela bai daukala zapore ona!**

# Kultura dastatu eta edateko aukera San Martinetan

**Babarrunak eta sagardoa izaten dira protagonista San Martin Azokan. Euskal giroan egun ederra pasatzeko parada egoten da herrian, baina aukera gehiago eskaintzen ditu San Martinek. Azaro osoan zehar ekintza kultural ez bateriko menua eskainiko da Ermuan, euskal kulturaren jaki onenak dastatu ahal izateko abagune ederra.**

**E**uskal Herriko Bertsolaritza Txapelketa Nagusia jokoan da momentu hauetan. Lau urtean behin ospatzen den zita bereziak abenduan izango du finala, baina bertan aritu daitezkeen hainbat bertsolarik Ermuan egingo dute etealdia lehenik eta behin. Azaroaren 3an bertsolaritza munduko izen handiak jasoko ditu Ermua Antzokiak 22:15etatik aurrera. Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Onintza Enebita, Unai Ajuria eta Odei Barrosok doinu eta errima ederrenak ekarriko dituzte gurera. Euskal Birusak antolatutako bertso jaialdia ikusteko sarrerek 10 euroko prezioa izango dute.

Gaztañerre Eguna azaroaren 14an izango da, astelehena, 19:30etik aurrera Merkatu Plazan. Afari-merienda autogestionatu honetan parte hartzen dutenek, doan jasoko dituzte

gaztaina erreak eta edariak. Gainera, 23:00ak bitartean, musika eta dantza solteekin ondo pasatzeko aukera izango dute (Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Berbalagunek antolatuta).

Bertso jaialdiaren egunean bertan, hilaren 3an, 'Barixakuetan' ekimenaren lehen saioa eskainiko du Antxitxiketan Aisialdi Taldeak 17:00etan plazan, eta berriz egingo da azaroaren 10ean. 12an, ordea, 'Hurrak eta lapurrak 2' haurrentzako zinea eskainiko da 17:00etan Ermua antzokian.

Ez pentsa San Martin Azoka pasata gauzak ospatzeko sasoi amaituko denik. Izan ere, hurrengo astelehenean, hilaren 13an, Gaztañerre eguna ospatuko da eta Merkatu Plazak afari-merienda autogestionatua hartuko du 19:30etatik aurrera, edari eta gaztainen doan izango direlarik. Afalostean dantza solteak



**Gari&Maldanbera entzuteko aukera egongo da.**

eta musika egongo dira, eta lagunekin zein familarekin joateko aukera polita izango da. 23:00etan amaituko da Kaltxango AEK eta Ermuko Berbalagun praktika-egitasmoak antolatuta afaria.

## **Musika, zinea, antzerkia eta dantza**

Azaroaren 17an kontzertu handia jasoko du Ermua Antzokiak. Gari izango dugu herrian azken urteotan berarekin batera ikusi dugun musikari taldearekin: Maldanbera. Gari&Maldanberak 22:30etan hasiko dute euren saioa eta 10 euroko sarrera ordaindu behar izango da bertara joateko.

Donostiko Zinemaldian aurkeztu zenetik hitz polit eta laudorioak besterik ez ditu jaso 'Handiak' filmak. Jon Garaño eta Aitor Arregik 'Loreak' pelikularekin hasi zuten bide zoragarria jarraitu eta euskal zinemarentzat beste harribitxi bat

sortu dute, azaroaren 18an (19:00etan), 19an (22:00etan) eta 20an (20:00etan) Ermua Antzokian ikusiko dena.

Ermua Antzokiak berak Santa Zezilia jaialdia jasoko du azaroaren 24an, ostirala. Alboka Musika Eskola eta Txindurri Dantza Taldeak eskainiko dute ikuskizuna eta sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da.

Herriko gaztetxoek ere badute bere tokia San Martin Kulturalean, eta hilaren 25ean Glu-Glu taldearen 'Marikiskur eta hiru hartzak' ikuskizuna egongo da ikusgai 17:00etan antzokian (sarrerak 4 eurotan).

Abenduaren lehen egunean emango zaio amaiera San Martin Kulturalean. Aukeran Dantza Taldeak 'Maurizia' ikuskizuna eskainiko du 22:15etan antzokian (sarrerak 10 euro), kultura eta euskaraz bateriko hila-beteari amaiera emateko.

Ekhñ Velar

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527

**Dejate**  
**QUERER**

BERRIA BIRNIA

**esanline**<sup>®</sup>

+ @ + +

846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esanline.es

# Euskararen sarea ehuntzen

Norbanakoek ematen duten maitasun eta mimoarekin ehuntzen doa euskararen sarea Ermuan. Aurrerapausoak emanez eta helburu berarekin, gure hizkuntzaren aldeko taldea bidea egiten ari da. Erroka handiak ditu aurretik, baina horrek bultzatzen du bere ekina. San Martin Azokak mugarrira ezarriko du bere bidean, Ermua euskaldun baten aldeko bidea.

**E**lkar ezagutu, eta euskara bultzatu eta sustatzea helburu zuten hainbat eragilek Ermuko Euskaltzaleen Sarea sortu zuten orain dela bi urte. Elkarrekin, erakundeak zein maila pertsonalean joandako kideak batu ziren bertan, eta berehala jarri ziren lanean Ermua euskaldun-

du bidean. Prozesu luze eta landu baten ostean, herriari luzatutako lehen proposamena iritsi zen, lehen ekitaldi handia: Ermuan Bagara Eguna. Joan den urteko maiatzaren 28an egin zen eta hama bi ordu eta erdiz euskarak hartu zuen plaza osoa. Euskaraz bakarrik egindako ekintzak egin ziren eta eran-



tzun ezin hobea jaso zuen herritarren partetik.

“Oso arrakastatsua izan zen”, antolatzaileen esanetan. “Ondorio oso positiboak atera genituen Ermuan Bagara Egunetik eta bi urtetik

behin egitea erabaki genuen”. Beraz, 2018an egitea tokatzen da, eta Ermuko Euskaltzaleen Sareak ez du bere hitza ahaztu. Irailean batu ziren taldeko kideak lehengo aldiz Ermuan Bagara



Iazko arrakastaren ostean, Ermuan Bagara Eguna ospatuko da berriz 2018ko maiatzaren 26an.

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
E-maila. enolimp@hotmail.com  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

Ferreteria  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
KOTXEKO GILTZEN  
KOPIAK ere  
egiten ditugu




943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
[www.ferreteriaanboto.es](http://www.ferreteriaanboto.es)

# GREMIOEN

## GIDA



**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA  
**LUIS VALLE**  
Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56  
Tailerra  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**PERTSIANAK**  
**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Etxo-sareak

Tailerra:  
Zoarrekko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

**ETXE-BIRGAITZEAK**

BERRITZE LANAK  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOK  
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 30, 3º 48260 Ermua-Bizkaia

**ETXETRESNAK**

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**ELEKTRIZITATEA**

**BETA**

**ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13      943 17 65 25  
689 23 31 71

**ERROTULAZIOA**

**ROTEK**  
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoiak
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 beheka (Mallabia)  
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

Egun berria prestatzen has-teko eta atea zabalik utzi dituzte bilera hauetan parte hartu nahi duen ororentzat.

Ekitaldiaren prestaketa emozio handiko momentuan iritsi da, izan ere, Euskal Herri osoan zerbait handia ari da prestatzen datorren urtera begira, euskararen munduari astindu handia emango dion ekitaldi zoragarria, eta horren harira ilusioz egiten du lan Ermuko taldeak ere. Hori kontuan izanda, 2018ko Ermuan Bagara Egunak euskararen aldeko mugimendua berotzeko balio dezakela pentsatzen dute antolatzaileek, baina datorren urtera arte itxaron behar izan gabe, aurtengo San Martinetan ere martxan jarriko dituzte hainbat proposamen berri.

### Ahobizkiak eta Belarriprestak

San Martin Azoka izango da AHOBIZI eta BELARRIPREST figuren abiapuntua Ermuan. Norberak bere buruari euskararen erabileran erronkak ezartzeko figurak dira hauek, baina bi modutan. AHOBIZI figura hartzen dutenek, adibidez, hainbat egunetan (edo eurek zehazten duten denboran) euskaraz bakarrik egiteko konpromezua hartuko dute, “beti ere ikusita beste pertsonak euskaraz asko dakiela, ulertzen duela eta abar. Ez badaiki, logikoa da hizkuntzaz aldatzea”. BELARRIPREST figura hartzen dutenak, ordea, euskaraz hain ondo hitz egiten ez dutenak edo, nahiz eta euskara ulertu,

berba egitea lotsa ematen dienak dira. Horrela, figura honen bitartez bi hizkuntzako elkarrizketa ahalbidetu nahi da. “Nahiz eta euskaraz gutxi sortu, elkarrizketa elebiduna ematea da helburua”. Bideo honetan ikusi daiteke nola funtzionatzen duten figura hauek:

Euskarari eusteko lana izango dute AHOBIZIEK, BELARRIPRESTEI euskara entzuteko baliabideak ematea. Modu honetan, biek gaztelerara jo gabe, bakoitzak hobeto menderatzen duen hizkuntzan egin ahal izango du berba, eta belarria euskarara gerturatzeko aukera emango zaie BELARRIPRESTEI.

Ekimen honen prozesuaren hasiera besterik ez da eman-go San Martinetan, eta izen-

emate bitartez bideratuko da ekimena. Gero, izena ematen dutenen arabera antolatuko da ekintza. Ermuko Euskaltzaleen Sarea osatzen dutenek jendea bilatzeko saiakera egingo dute San Martinean gutxieneko kopuru bat izateko, baina nahi duenak ermukoekuskaltzaleensarea@gmail.com helbidean edo Ermuan Bagara Facebookeko orrian eman dezake izena.

Ermuko Euskaltzaleen Sareko kideek espero dute ekimen honen bitartez jende gehiago batzea datorren urteko zita garrantzitsuari begira. Euskaldunen artean ezagutu, animatu “eta plazak hartzea” nahiko genuke, “Ermua euskalduntzea, azken finean”.

Hilean behin batzen dira Ermuko Euskaltzaleen sareko kideak eta hurrengo bilera azaroaren 22an egingo dute 19:00etan Lobianon. “San Martinetako balorazioa egingo dugu, proposamen berriak nolako harrera izan duen ebaluatuko dugu eta abenduaren 3an egingo den Euskararen Egunaren plangintza egiten hasiko gara”. Ondo apuntatu egun hori, urteko azken hileko hirugarren egunean eman-go baita jakitera aurretik aipatu dugun 2018ko zita berezia.

Ekhi Velar



Lobianon batzen da Ermuko Euskaltzaleen Sarea hilean behin.

**mari  
asun**   
LORADENDA  
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**URRETA** **burdindenda**

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Savrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Ervailak	

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik



# MIGEL MUGARZA

**- Zenbat asmakizun sortu dituzu?**

Ez dakit asmakizunak diren edo zer, baina tira, 5 edo 6 sortu ditudala esango nuke.

**- Gogoratzen duzu lehena zein izan zen?**

Bai, beste lagun batekin egin nuen eta porruak txikitzeke makina izan zen. Oso praktikoa da eta, orain ere, lagunek txerria hiltzen duten tokietara eramaten dute.

**- Nola bururatu zitzaizuen?**

Egunero egiten dudana beharra egiten ari naizenean, behar hori errazten saiatzen naiz eta horrela bururatzen zaizkit gauzak.

**- Zein da asmatu duzun azken makina?**

Kamamila batzeko makina. Funtzionatzen du. Sinplea da, baina erabilgarria.

**- Zein asmakizunez zaude harroen?**

Arto-uruna egiteko errotaz. Nik diseinatu nuen sistema guztia eta, gero, horrekin erabiltzen dudana galbahea ere sortu nuen. Taladro batekin jartzen dut martxan, bestela eskuak nekatu egiten dira-eta.

**- Asmakizun guztiak erabiltzen dituzu?**

Gehienak bai. Egun hauetan hasiko naiz erabiltzen babak urkultzeko makina, adibidez.

**- Orduan, zure erabilerarako dira asmakizunak...**

Bai, baina lagunen batek eskatzen badizkit, uzten dizkiot.

**- Nola etortzen zaizu inspirazioa?**

Bat-batean etortzen den zerbait da.



**Mallabiko 'Mallegoi' baserrian asmakizunak egiten dira. Asmatzailea bertan bizi den Migel Mugarza da eta eguneroko zer eginetan erraztasunak bilatzeko sortutako tramankuluak dira asmakizun horiek. Bat-batean bururatzen zaizkiola dio, baina buru-argitasun eta trebezia duten sorkuntzak dira. Hala ere, badago asmatu ezin duen gailu bat, "herriko umeek euskaraz egiteko zerbait".**

**- Noiz hasi zinen asmakizunekin?**

15 urte pasa dira lehena sortu nuenetik.

**- Beti izan duzu eskulaneta-rako trebetasuna?**

Etxean behintzat ez, beste la galdetu emazteari (barreak). Baina tailerrean ere soldaduran eta rotaflexarekin aritzen naiz, beraz, horretan badaukat praktika.

**- Zer asmatzea gustatuko litzazuke?**

Asmatzen saiatu naiz, baina ezin izan dut asmatu hemengo umeak euskaraz aritzeko zerbait. Mallabiko umeek euskaraz egin dezaten zerbait asmatuko nuke gustura, hor nabil buruari bueltak ematen. Gu Frankismo sasoiko umeak gara, 'Cara al sol' abestu behar genuenak, eta frankismoak euskara galtzea lortu ez bazuen, gure herriko lagunek lortu behar dute? Tristeia izango litzateke.

**- Badago bertan behera utzi behar izan duzun asmakizunen bat?**

Bai, egon dira. Batzuetan gogo handiarekin hasten naiz eta hurrengo egunean burutik joan egiten zait.

**- Asmakizunak saltzea pentsatu duzu?**

Porruak txikitzeke makina batzuk saldu nituen, baina besterik ez. Norbaitek behar baditu, lagako dizkiot.

**- Txikitari zer izan nahi zenuen?**

Aitaren modukoa. Gizon zuzena eta behargina zen, eredu ona.

**- Berriz jaioko bazina...**

Ez dakit. Berriz jaioko ez naizenez, ez dut pentsatzen.

**- Zerk lasaitzen zaitu?**

Etxeko gauzak egiteak, or-tuko beharrak.

**- Bizitzako une bat...**

Nire alaba jaio zen momentua.

**- Lema bat...**

Bizitzaren oinarria errespetua dela esango nuke. Semeari ere esaten diot: "Lagunei ez egin barre, egin barre lagunekin".

**- Bidaia bat nora?**

Txilera egin genuena zoragarria izan zen. Oso pozik ibili ginen. Islandian ere primeran pasa genuen eta baita Britainian ere.

**- Bete gabeko ametsik?**

Euskal Herria libre ikustea. Katalunia lehenengo eta gero Euskal Herria. Ametsa beteko dela uste dut.

Ekhi Velar

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



optika

ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Roger Cordero, futbol entrenatzailea:

# “Guraso askok uste dute Messi edo Maradona dutela etxean”

Ermua eta inguruko herrietako futbolari askok egin du bidea Bilboko Athletic Clubean eta horren erru handia dauka Roger Corderok. Ermuko futbol- eskolan bere gidaritzapean ibilitako jokalaria izan dira asko, berak leundutako harribitxiak. Ia 25 urte daramatza Athleticekin elkarlanean eta, Orbea lantegiko beharra amaituta, oraindik ere Bilboko taldearentzat hain garrantzitsua den Lezamako harrobiaren alde lan egiteko gogo handiz dabil, hori delako gehien gustatzen zaiona.

## - Noiz hasi zinen futbolaren munduan?

Txikitatik nabil futbolean. Eibarko Txaltxa Zelaiko parkean antolatzen ziren partiduetan aritzen nintzen, koadrilakoe-kin. Nire adineko eibartar guztiak bertan ibili zirela uste dut. Real Ipuruia taldean hasi nintzen eta gero Beti Lagunek fitxatu ninduen. Han herriko onenek jokatzen zuten. Gero Eibar KE-ren jubeniletara pasa nintzen, handik Ermura eta gero Zaldibarren bi urte egin nituen, 34 urte bete arte, eta han erretiratu nintzen.

## - Eta entrenatzaile izatera pasa zinen?

Karneta atera eta Ermuko jubenilen taldea entrenatzen hasi nintzen. Gero 2. erregionaleko taldea entrenatu nuen eta handik Artibaira pasa nintzen. Txapeldun geratu ginen han eta 1. erregionalera igo ginen, eta Elorriok fitxatu ninduen. Bost urte egin nituen han, eta 2. erregionaleko eta Bizkaiko txapeldun izan ginen. Ondoren, Ermura bueltatu nintzen, etapa zaila izan zena.

Norberaren herrian aritzea zaila da, baina Markina eta Elorrioren zoragarri egon nintzen. Gainera, kontuan izanda ni erdalduna naizela, bikain tratatu ninduten. Euren artean euskaraz egiten zuten eta nirekin gazteleraz, eta bikain moldatu ginen. Pena handia daukat, 60 urterekin ez dudalako euskaraz egiten ikasi. Ikasten aritu nintzen, baina oso zaila da. Emaztea eta semea euskaldunak ditut, eta ulertzen dut.

## - Nola hasi zinen Athletic Clubekin lanean?

Eskolarteko kirola eramaten nuen ikastolakoekin eta San Lorenzon batzen ginen Benito, Agustin, German (Eibar KE-ren delegatua dena) eta laurok. Eskolarteko txapelketa antolatu genuen eta Athletic etorri zitzaidan eurekin lan egin nahi nuen galdezka. Elorrioren ari nintzen orduan eta denboraldia amaitzean interesatuta bazauden, eurekin hasiko nintzela esan nien. 25 urte egingo ditut eurekin.

## - Zein izan da zure lana Athleticekin?



laz arte ‘Lezama txikia’ izan dugu Ermuan eta edonor aritu ahal zen bertan. Jokalari onak irten dira hortik.

## - Beraz, ez zenuten jendea fitxatzen?

Ez, nahi zuenak zabalik zituena ateak. Eibar, Bergara, Arrasate, Elgoibar eta hainbat herritatik etorri zaigutako jendea. Aurten Ermuak hartu du futbol-eskolaren ardura, baina nik bertan jarraitzen dut. Astean birritan egoten naiz han, eta asteazken eta igandeetan Lezamara joaten naiz. Gero, Gipuzkoan zehar aritzen naiz jokalaria ikusten.

## - Teknika eta horrelakoez gain, jokalarien jarrera ere kontuan hartzen duzue?

Bai, noski. Oso garrantzitsua da hori gaur egun. Gizartea asko aldatu da. Sakrifizioa eskatzen diet nik jokalariei. 16 urterekin agentea daukate askok, guraso askok uste du Messi edo Maradona dutela etxean, eta hori arazo da.

## - Zure gidaritzapean ibilitako zenbat jokalari iritsi dira Athleticen lehen taldera?

Bada, adibidez, Iñigo Ruiz de Galarreta, orain Bartzelona B-n ari dena. Meritu handia dauka, izan ere, Eibartik oinez etortzen zen bere aitona-rekin eta entrenamendua amaitzean aita zetorren bila. Bestetik, Seguin anaiak ere hemen izan ziren, eta baita Josu Hernaez eta Iñigo Retegi ere. Beste asko ere joan dira hemendik Athleticen harrobira. Batzuk profesionalak dira, beste batzuk ez, baina hori lanaren poderioz heltzen da, konstantziaz. Ruiz de Galarreta, Seguin eta Andoni Areitioaurenaren kasuan, txikitatik ikusten zen urrun iristeko aukerak zituztela.

## - Zer eman dizu futbolak?

Gauza batzuk ez dira politak. Batzuek, akaso, esango dute gogorra naizela, baina futbola inguratzen duena oso polita da, eta esango nuke askoz ere lagun gehiago egin ditudala etsaia baino.

Ekhi Velaz

Komunitateak

# San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

# PUB YOMY

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

Udal Euskaltegia  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

## Eskolabarri ikastetxearen berrikuntza

Urtebete eman dugu Eskolabarri ikastetxeko eraikuntza berrizten, nahiz eta Eskolabarriko "berrikuntza" orain dela 21 urte hasi, "Centro Cultural Ermues"-ek pertsiana itxi zuenean, hain zuzen ere.

Egoera ez zen erraza, askotan "krisi" garaiak hobetzeko aukerak izaten dira eta, zorionez, azkeneko hori gailendu zen. Izan ere, garaiko irakasle talde batek ausardiak eta konpromisoz betetako erabakia hartuz, eskolaren itxiera saihestez gain, eskola eraldatu egin zuten eta ESKOLABARRI KOOPERATIBA ELKARTEA sortu zuten. Ekintzaileago eta modernoagoa den eskola bat sortuz, euskalduna eta Euskal Herriko kulturaren oinarrituta. Bereziki, Ermuko kulturaren oinarrituta.

Hasierako lehenengo urrats horiek oso zailak izan ziren. Ikasle gutxi, diru arazo larriak... baina hala ere, Goienkaleko Haur Hezkuntzako instalazioen berritzapen integrala burutu zen.

Pixkanaka-pixkanaka, lan eginez, gogoz eta proiektu berri baten eskutik, ikasgelak betetzen direla ikusi genuen, Goienkale-lparragirre instalakuntzetan ume guztiak sartzeko arazoa izan genuen arte.

Momentu horretan Santa Ana kalean dagoen eraikinera mugitzeko aukera izan genuen, baina instalakuntzak ez ziren Eskolabarriko eragile guztien artean lantzea nahi genuen Hezkuntza Proiekturako espero genituenak. Hori horrela izanik, handitze plana lantzen hasi ginen.

Sinesgaitza iruditu arren, ametsa egia bihurtu da. Orain gure nahia, hezkuntza kalitatean ahalik eta eragin handien izatea da, gure nortasun kooperatiboari jarraituz, inguruan eta herrian hobekuntza hori nabarmentzea ere nahiko genuke. Batez ere, Ermuak gozatu dezan.



### JUANITA IBAIBARRIAGA LITERATURA LEHIAKETA

Dagoeneko Juanita Ibaibarriaga literatura lehiaketan parte hartzeko presatzen ari gara. 3. maila eta 6. maila bitarteko ikasleak ipuin proiektuan murgilduta daude, lehiaketarako aurkeztuko dituzten ipuinak ekoizten.

Urtero bezala, saridunak Euskararen Egunean antzokian ospatzen den jaialdian ezagutuko dira. Zorte on!!

### Hauteskundeak ESKOLABARRIN

Bi urtetik behin egiten dugun bezala, hauteskundeak proiektuaren barruan, Euskara, Ingurumen eta Ingeles batzordeetako kideak aukeratu dira. Horretarako, 3. mailatik aurrera, ikasleek beraien burua aurkeztu eta kanpaina egin dute, mitinak egin, kartelak prestatu, eta urriaren 10ean bozkatzeko aukera izan zuten. Oso ekintza motibagarria izan da, eta nahiz eta denak hautatuak ez izan, hauteskunde guztietan bezala, denak izan dira irabazle, pentsamendu kritikoa garatu dutelako, eta sensibilizazio kanpaina handia ere izan delako.



**OINAK**

**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44

**san pelayo**  
clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

**OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!!*

 Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

## “Xanduli, Manduli, Kikirriki!! Eman goxokiak guri!!”

**E**skutik hartu eta berarekin joateko esan zigun. Emakume langilea da amama eta ia astebururo joaten gara bere-  
ra, behar duen horretan laguntzera eta bere istorioak gogotsu entzutera.

Urriko larunbat honetan ere horrela egin zuen. Bazkal osteko lokuluxkatik esnatu eta, eguraldi ederra lagun, ortu alboan dituen lizarren gerizpera eraman gintuen Ander eta biok.

-Badator negua, bikote -esan zigun, berari dagokion patxada eta goxotasun paregabearekin- Eguna aspaldi hasi da laburtzen eta azken bi asteetan asko igarri diot horri. Zuhaitz hostoak ere hasi dira udazkentzen eta erortzen. Polita dago dena, ezta?

Zuhaizpean gordeta zituen kalabazetatik txikiena hartu eta barrutik husten hasi zen:

-Garai honetan izaten zen, Domu Santu Egunaren bezperan beti. Egun

batzuk lehenago prestatzen hasten ginen. Ortuak emandako kalabazak batu eta txikiak guretzat izaten ziren. Barrutik den-dena hustu eta begiak eta ahoa egiten genizkien. Domu Santu Egunaren bezperan, iluntzean, kalabaza bakoitzari kandela bat ipini eta herriko leku ezberdinetan ipintzen genituen.

Anderrek eta biok ahozabalik jarraitzen genion.

-“Xanduli, Manduli, Kikirriki! Eman goxokiak guri!” esaten genuen, berriz baserri eta etxez etxe eskean ibiltzen ginela. Negu luzerako gozokiak batzeko lehenengo ospakizun garrantzitsua izaten zen. Gehienetan gozokiak ez, baina, gaztaina mordoa ematen zizkiguten. Goxo-goxoak egoten ziren -hasperen egin zuen, bigarren kalabaza eskutan hartu eta pentsakor berriro ere hitz egiten hasi zen arte.

-Guretzat negua orduantxe hasten zen. Izpiritu txarrei izua sortu eta hil-



*Ainara Riveras*

dakoen arimak zerura iristen laguntzea zen asmoa. Gurekin ez zirenak gogoratzeko eta omentzeko ospakizun garrantzitsua. Domu Santu Egunean argizaiolaz eta lore sortaz kanposantura joaten ginen beti, baina, aurreko gauean ere herriko umeek eta gazteek horrela ospatzen genuen. Ama Soriakoa zuen lagun bat banuen eta han ere ospatzen zutela kontatu zidan behin. Kantuan eta dantzari eskean joatea oso dibertigarria izaten zen eta oso ondo pasatzen genuen.

Beste behin, arratsalde bikaina pasa genuen amarekin eta gurasoiei Arimen Gaua gurean berriro ospatzen hasteko proposamena egitea erabaki genuen.

“ Negu luzerako gozokiak batzeko lehenengo ospakizun garrantzitsua izaten zen ”

arral97.com  
**arral**

Telf.: 943 17 60 75  
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

  
IZASKUN TXURRUKA



Goienkate 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com



**TORREKUA**

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekuakalea 2 - Ermua  
943 17 69 29

**MALLABIA  
1921**

Argazki hau Indalecio Ojangurenek atera zuen 1921 urtean. Bertan Florentzio eta Modesto Solozabal Izagirre anaiak agertzen dira.

**UZTAILEKO ZUZENKETA**

Argazki hau 1932 inguruan aterata dago Mallaetxebarri baserriaren atarian. Bertan agertzen dira besteak beste: Rosario Milikua, Maria Luisa Milikua, Petra Milikua, Kresen Milikua, Jesusa Milikua, Generosa Gallastegi, Evarista Gandiaga, Maria Zubia, Matilde Abendibar, Julia Abendibar, Maria Bastida, Candida Amillategi, Jabier Lasuen, Juanita San Martin, Isidro Uriarte, Benigno Milikua (Lehioan dagoen mutikoa), Tomasa Milikua, Julia Milikua, Dominga Milikua, Margari Milikua eta abar. Norbaitek zerrendan ez dagoen norbait ezagutzen badu, eskertuko genuke izenak guri pasatzea. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

**ERMUA  
1955**

Rosarito Iriondo, Sallabenteko Apraiz okindegiko alabaren solteratako despedida. Urte horretako iraila amaieran Urkiolan ezkondu zen Gabirel Delgado ubidearrarekin, baina aurretik lagun arteko bazkaria egin zuen Herreronian, dantzarako saloia sasoi hartan. Zutik, ezkerretik eskumara: Kepe Olaetxea, Ana Mari Valdubieco, Esther Albizu, Zezilia Olañeta, Lorea Olaetxea, M<sup>a</sup> Luisa Barrondo, Rosarito bera, Arantza Mugerza, Felisa Mugerza, Begoña Olalde, M<sup>a</sup> Esther Olaetxea eta Mari Nieves Antxustegi. Jarrita: Mari Tere Urrangoetxea, Natalia Yarza, Maritxu Arrieta, M<sup>a</sup> Angeles Arrieta, Mari Carmen Esturo eta Bitore Mugerza.

**IRAILKO ZUZENKETA**

1949 - Donostiako Igeldo mendian, boskote dotorea. Ezkerretik eskumara Victor Orbe, Eduardo Pascual, José Antonio Olabarrí, Luis Mari Izagirre eta Victor Yarza. Hollywoodeko aktoreen gisa, Photocall saiorako barandilla zuri mitikoan erretratatu ziren, Zinemaldira gerturatzeko aukerarik ez zuten izan baina... oraindik jaiotzeke zegoen-eta!

**Enter**

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**Pub SCORPIO**

Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

**Proba-Leku**

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**



**Urriaren 29an**  
Zorionak bikote zuen lehenengo ezkon urtean. Zoriontsuak izan!! Patxo handi bat eta askoz gehiago izan daitezela!



**Urriaren 28an**  
Zorionak Eder! 4 urte beteko dituzu! Muxu handi bat familia osoaren partez. Askok maite zaitugu!



**Urriaren 29an**  
Zorionak Mikeltxo! Primeran pasa zure 10. urtebetetzean. Muxu handi bat etxe-ko denon partetik!!



**Azaroaren 9an**  
Zorionak Markel zure 8. urtebetetzean. Ondo pasa eguna eta musu asko amaxo eta aitaxoren partez.



**Urriaren 19an**  
ZORIONAK ETXEKO TXIKIENARI! Familia guztiaren partez.



Zuen egunik ederrenaren parte izan ginelako. Zorionak bikote!



**Azaroaren 11an**  
Zorionak Lea zure urtebetetze egunean! Muxu handi bat aitxita, amama eta osaba Ugutzen partez. Ondo pasa!



**Azaroaren 14an**  
Zorionak Uxue zure 9. urtebetetzean!! Muxu handi bat etxe-koen partez! Askok Maite zaitugu!



**Urriaren 17an**  
ZORIONAK JULEN! Urteak pasa ahala zu beti jator! Patxo handi bat danon partez!




**Azaroaren 28an**  
Zorionak Maide! Segi orain bezain jator eta ospatu topera zure seigarren urteurrena! Muxu erraldoi bat amaxo eta aitaxoren partez!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:

**drogeten@gmail.com**

Azken eguna: Azaroaren 15a.



**Urriaren 19an**  
Zorionak Unax! Muxu asko etxe-koen partez!



**FELITXO ARAIZTEGI MANZISIDOR**  
(2017ko urriaren 13an)

*Nerea Berriozabal Euskal Biruseko kidearen senarra*

**EUSKAL BIRUSEKO LAGUNAK**



**ZINEA**

**4tik 6ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**11tik 13ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**18tik 20ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak

**25etik 27ra:**  
Zehaztu gabeko filmeak  
Ermua Antzokian.  
Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilaren 2, 9, 16, 23 eta 30ean:**  
Zehaztu gabeko filmea  
Ermua Antzokian.  
20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilaren 5, 12, 19 eta 26an:**  
Zehaztu gabeko filmea  
Ermua Antzokian.  
17:00etan.

**MUSIKA**

**Hilak 3:**  
Press Play jaialdia:  
Underground soinuak  
(Hip-Hop, Grafitti,  
Sound System..) 18eta-  
tik. San Antonio ermitan.

**Hilak 4:**  
Kontzertua: Puro Relajo  
(México Rebelde jardun-  
aldiak). 19:30ean.  
Orbe Kardenalaren pla-  
zan.

**Hilak 4:**  
Kontzertua: Rojo  
Cancionero (México  
Rebelde jardunaldiak).  
22:30ean. Eskilarapeko  
Ateneoan.

**Hilak 17:**  
Kontzertua: Gari &  
Maldanbera. 22:15ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 10€

**Hilak 18:**  
Blues kontzertua: Shanna  
Waterstown. 20:00etan.  
Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera: 8€

**Hilak 21:**  
Zezilia Deunaren kalejira.  
19:30etatik.

**Hilak 22:**  
Zezilia Deunaren diana.  
7:00etatik.

**Hilak 22:**  
Zezilia Deunaren kontzer-  
tua. 18:00etan.  
Liburutegiko patioan.

**Hilak 24:**  
Zezilia Deunaren jaial-  
dia. 22:15ean. Ermua  
Antzokian. Sarrera: 3€

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 3 eta 10:**  
Haurrentzako jolasak:  
Barixakuetan.  
17:30etan. Plazan.

**Hilak 4:**  
Haurrentzako ipuin-kon-  
taketa ingelesez.  
17:30ean. Lobianon.

**Hilak 18:**  
Haurrentzako ipuin-kon-  
taketa. 17:30ean.

**Hilak 25:**  
Haurrentzako antzer-  
kia: "Marikiskur eta  
hiru hartzak" Glu-Glu  
Produzioen eskutik.  
17:00etan. Ermua  
Antzokian. Sarrera: 4€

**ANTZERKIA**

**Hilak 11:**  
Umore ikuskizuna:  
"Que no nos frunjan la  
fiesta", David  
Guaporen eskutik.  
22:15ean. Ermua  
Antzokian. Sarrera:  
15€

**ERAKUSKETA**

**13tik 26ra :**  
Ertibil Bizkaia: Bizkaiko  
artista gazteak. 18eta-  
tik 20etara.

**27tik 15era:**  
Argazkiak: 2017ko ope-  
rarak lehiaketara aurkeztuta-  
ko lanak. 18etatik 20etara.

**BESTELAKOAK**

**Hilak 3:**  
Berto jaialdia: Maialen  
Lujanbio, Uxue Alberdi,  
Andoni Egaña, Onintza  
Enbeita, Ibon Ajuria eta  
Odei Barroso.  
Gai-jartzailea: Josu  
Goikoetxea. 22:15ean.  
Antzokian. Sarrera: 10€

**Hilak 5:**  
"El corazón del tiempo"  
(México Rebelde jardun-  
aldiak). 19:00etan.  
Eskilarapeko Ateneoan.

**Hilak 10:**  
Magia Ikuskizuna: "Una  
noche con Mag Lari" Lari  
Magoaren eskutik.  
22:15ean. Ermua  
Antzokian. Sarrera: 10€

**Hilak 11:**  
San Martin Azoka.

**Hilak 13:**  
Gaztañerre: Kalejira, afaria  
eta gaztainen banaketa.  
19:00etatik.

**Hilak 18:**  
Magostos: Gaztainen  
banaketa musikarekin giro-  
tuta. 11etatik. Galziako  
Zentroan.

Patxi López



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO  
arraindegia**



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com



**ALBOKA**



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Ermuan, Euskal Birusa Elkarteak antolatua:

# XXVIII. SAN MARTIN

## AZOKA



AZAROAREN  
11AN, LARUNBATA

11:00

- **Azoka** jendearentzat zabalduko da.
- **Kalejira** Musika Eskolako trikitilari eta txistulari gazteekin.
- **Kalejira** Arrasateko gaiteroekin.
- 'KULKI'rekin **umeentzako jolasak** eta **ikastetxeetako postuak** San Martin plazan.
- **Ehun buruko artaldea eta 5 astoren jaitsiera** Errekaldetik Baldespina.
- **Abere eta hegazti erakusketa** Baldespina parkean.
- **Idi parea** probalekun.
- **Artisauen postuak** Santiago plazan.
- '**Astobusa**' Zubiaurren.
- **Txarri errifak** salgai kalean.
- **Jantzien argazki lehiaketa** egunean zehar, 18:00ak arte. Argazkian agertu behar da: pertsona edo talde bat baserriar jantziarekin. Saria: afaltzeko 100 eurotako txekoa. Igo argazkia eta @euskalbirusa etiketatu.

10:00-12:30

- **Baserriko tresnen erakusketa** Lobianon. Eskolabarrik antolatua.

11:00-14:00

- Zenbat pisatzen du aurtengo txerriak? **Apustua** euro 1. Saria: jasotakoaren %70a. Pisua 14:00etan jakinaraziko da.

12:30

- **Euskal dantzak** plazan: Txindurri txistu eta dantza taldea.

13:00

- **Herri kirolak** Komentukuan. Irati Astondoa, Karmele Gisasola, Xabier Zaldua, Ugaitz Mugerza eta Julen Cañameres arituko dira aizkoran, harri jasotzen, txingetan, ingudeaz eta korrika.

13:30

- **Sari banaketa** postuz-postu. Erakusleihen lehiaketako irabazleek oholtzan jasoko dute saria.

15:30

- **Babajana** Merkatu Plazan: 15 euro (babak, odolostea, txorixoa, saiheskia, postrea eta kafea). Tikitak salgai Erdikokale 2-1 edo 688632874.

18:00

- **Erromeria 'LUHARTZ'** taldearekin Orbe plazan.
- **Pilota partidua** Arizmendi frontoian.

19:00

- **Kalejira** Arrasateko gaiteroekin.

19:30etan plazan

- Errifa **zozketa**.
- Jantzien argazki lehiaketa **irabazlea**.
- **Larraidantza**.



ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



BABESLEAK

